

«Nire poemetan pertsona da gai nagusia, baina ezkutuan dago»

INES GOIKOETXEA IDAZLEA

'Lanbroaren malkoa' poema bilduma argitaratu berri du Ines Goikoetxeak (Egia, 1939). Galdutako senarrari eskainitako omenaldi bat da liburua, sentimenduz betea.



L. FERREIRA

-LIDE FERREIRA

Lanbroaren malkoa argitaratu duzu, zure zazpigarren olerki bilduma. Zer kontatzen du? Lanbroaren malkoaren hitzurrea idazteko ez nintzen gai sentitzen. Baina esan zidaten, beharbada, hori izan zitekeela ona, islatzea momentu horretan sentitzen nuena. *Poema hauetan azaltzen dira natura, sentimenduak, zu edo niak, baina badaude ere barrura, oso barrura begiratzen dutenak* [Liburuaren hitzaurrea irakurri du].

Hor ikusten da poetaren egoera, nire egoera.

Zer gertatu zaizu?

Orain dela ia bi urte senarra galdu nuen, eta nahi nion berari omenalditxo bat egin. Horregatik, poema hauetan daude bide asko, leku asko, elkarrekin egindakoak eta ikusitakoak. Ez dut espreski azaltzen liburuan, baina ezagutzen nauenak badaki zein momentu pasatzen ari naizen eta zer gertatu den nire bizitzan. Poesia zurea da zuk daukazun bitartean, baina

kanpora ateratzen denean, ez da zurea.

Liburuaren azala berezia da oso. Bai. Ikusi nuenean, ez nuen ulertu, eta iloba baten irudia etortzen zitzaidan gogora. Ilustratzaileari esan nion: *Zuk ondo irakurri dituzu nire poemak?* Irakurri zituelako egin zuela azal hori erantzun zidan. Azkenean, beste iloba batek ireki zizkidan begiak: *Amona, besarkada bat da. Norbait besarkatzen duzunean, nola besarkatzen duzu? Erdian zer dago? Hor mina dago.*

Nolakoa da zure poesia?

Nire poesia oso intimista eta simbolista da. Niri poemetan pertsona da gai nagusia, baina ezkutuan dago. Naturaren bidez, metaforak erabiliz, erakusten dut. Adibidez, eguzkia edo landare bat izan daiteke pertsona bat. **Zein da zure idazketa prozesua?** Naturan inspiratzen naiz, asko erabiltzen dut. Senarra itsasokoa zenez, ikasi dut itsasoa maitatzen, baina, normalean, mendiak iradokitzen didana idazten dut. Margolari sentitzen naiz: zi-

riborro bat egin, esaldi batzuk idatzi eta horiek etxera eramaten ditut, landu eta poema bukatzeko. Gordetzen ditut, baina, batzuetan, berriro hartzen ditut, luzatu, moztu edo aldatzeko.

Nola ekin zenion idazteari?

Duela 25 urte inguru, konturatu nintzen euskarazko liburuak ez nituela ondo ulertzen. Orduan, nire buruari erronka bat jarri nion: euskara lantzea, irakurtzen nuena ondo ulertzeko. Dandai Emakumeen Elkartearen hasi nintzen euskara ikasten. Beste gauza batzuen artean, bakoitzak testu bana idazten genuen, eta Ttan Ttakun irrattira joaten ginen, horiek irakurtzera. Nik beti poema bat eramaten nuen, eta hango mutilak esan zuen: *Zeinek diran poema hauek? Ez dituzu publikatzen? Saiatu!* Azkenean, animatu nintzen.

Horrela hasi zinen poesia lehiaketetan parte hartzen.

Jende askok esaten du sariak ez direla onak. Nire ustez, bultzada bat emateko oso baliagarriak dira. Niri, sari batzuk -bereziki, Iparragirre saria- irabazteak animatu ninduten idazten jarraitzera eta atea ireki zitzaidan.

Musika ere erabiltzen duzu idazteko. Zergatik?

Pianoa asko gustatu izan zait beti: Chopin, Bach... Ingelese ez dakidanez, horrelako musika erabiltzen dut idazteko. Senarrak Easo abesbatzan kantatzen zuen, eta, nahiz eta ez jakin, asko errespetatzen dut. Behin baino gehiagotan esan izan nion nire senarrari gaztea izango banintz, pianoa jotzen ikasiko nukeela.

Zer asmo duzu etorkizunerako? Jarraitzen dut idazten, baina, adinagatik, ez dakit publikatuko ditudan. Aurreko batean, adibidez, itsasoaren aurrean idatzi nuen poema bat. Zuzenduta daudenean, koadernoan pasatzen dut. Koaderno politak ditut gainera, oso mistikoak.

lferreira@hitza.eus